

ZUZENBIDE PROZESALA I

BOTERE JUDIZIALAREN GOBERNUA

Goizeder Otazua Zabala

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. 1. Osaketa. 2. Funtzioak. 3. Antolaketa. 3.1. Presidenteak. 3.2. Auzitegi Goreneko presidenteordea. 3.3. Osoko bilkura. 3.4. Batzorde iraunkorra. 3.5. Diziiplina batzordea. 3.6. Gai ekonomikoen batzordea. 3.7. Berdintasun batzordea. 3.8. Bestelako organo teknikoak. **III. Gobernu-salak.** 1. Osaketa. 2. Funtzioak. 3. Funtzionamendua. **IV. Presidenteak. V. Justizia-saletako presidenteak eta epaileak. VI. Epaile dekanok eta epai batzak.** 1. Epaile dekanok. 2. Epai-batzak. **VI. Ikuskapena. VII. Material osagarria.** 1. Araudia. 2. Jurisprudentzia. 3. Bibliografia. 4. Web-orriak.

I. SARRERA

Estatu modernoetan, jurisdikzio-funtzioaren egikaritze organo, pertsona eta bitarteko ugariren elkarlanaren ondorio izanik, nahitaezkoa dugu antolaketa, administrazio eta kudeaketa egokia. Preseski, gobernu-funtzio horren esleipena botere judizialaren benetako independentzia maila neurtzeko funtsezko parametroa dugu. Historikoki, eginkizun horiek botere betearazlearen esku izan dira, baina, gobernu eginkizunak botere judiziala osatzen duten organoei esleituz gero, independentzia maila areagotuko da presioak eta eraginak ekidinez. Ideia horri jarraituz, Espainiako Konstituzioan bertan, berariaz, botere judiziala gobernatu edo zuzenduko duen organoa sortu da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN).

EK 122.2 artikulua: "Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia da beraren gobernu-organoa. Lege organikoak zehaztuko ditu haren estatutua eta kideen bateraezintasun araubidea eta eginkizunak; bereziki, izendapenei, maila-igoereei, ikuskatzei eta diziiplina-araubideari dagokienez".

Argi dago, konstituziogileen buruan zegoela justizia ministerioaren esku-hartzea mugatzea bai jurisdikzio-organoen eraketari baita haien funtzionamenduari dagokionez ere. Ikuspegi horrek estatuko hiru botereen arteko oreka eta independentzia bermatzen laguntzen du.

Beraz, gobernu-organoen egitekoa izango da botere judizialaren eguneko lana zuzentzea, antolatzea edo gidatzea; besteak beste, diziplina ahala egikaritzuz, baimen eta lizentziak emanez, destino edo igoerak erabakiz, etengabeko prestakuntza antolatuz... Horretarako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaz gain, Botere Judizialaren Lege Organikoak (BJLO) bestelako organoak aurreikusi ditu: gobernu-salak, presidenteak, epaile dekanok eta epai-batzak¹.

BJLO 104.2 artikulua: “Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokio Botere Judiziala gobernatzea, nazio-lurralde osoan izanik eskumena, Konstituzioan eta lege honetan aurreikusitakoarekin bat. Harekiko mendekotasunez, lege honetan esleitutako funtzioak beteko dituzte Auzitegi Goreneko, Auzitegi Nazionaleko eta Justizia Auzitegi Nagusietako gobernu-salek, hargatik eragotzi gabe auzitegi horietako presidenteei eta gainerako jurisdikzio-organoen titularrei dagozkien funtzioak”.

II. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia Konstituzioak aurreikusitako botere judizialaren gobernu-organo gorena dugu. Aurreratu dugun bezala, organo konstituzional horren bidez, jurisdikzio-organoen jardunean botere betearazlearen edozein esku-hartze ekidin nahi da, gobernuaren zein justizia ministerioaren eskumenak mugatuz.

Gobernu-funtzio horien irizmena zehaztean sortu dira arazoak. Izan ere, bi ikuspegi kontrajarriren arteko oreka bilatu beharrean dago legegilea: batetik, Konstituzioaren irakurketa zorrotza eginez, BJKNren egitekoa epaile eta magistratuen estatutua kudeatzera mugatu, edo bestetik, gaur egun esleitzen zaizkion eskumenak gairiditu eta erabateko gobernu bere esku utzi, hots, bitarteko materialen eta pertsonalen administrazioa eta kudeaketa BJKNren eskumenpean jarri.

¹ Ezin ahaz genezake, aipatutakoez gain, gobernu funtzioak egikaritzen dituzten bestelako titularrak ere badaudela; hala nola, justizia ministroa, gobernu eta justizia administrazioan eskumenak dituzten autonomia erkidegoak.

1. OSAKETA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia presidenteak -era berean Auzitegi Goreneko presidente ere badena- eta hogeiki kidek osatzen dute eta erregeak izendatzen ditu bost urteko eperako. Hogeiki kide horietatik hamabi karrera judizialeko epaile eta magistratuen artetik aukeratuko dira (Botere Judizialaren Lege Organikoak ezartzen duen eran) eta beste zortziak hamabost urte baino gehiago jarduna eta aintzatetsitako gaitasuna duten juristen artean aukeratuko dira. Ganberetako bakoitzak, Kongresuak eta Senatuak, hamarna kide hautatuko dituzte, hiru bosteneko gehiengoz, sei karrera judizialeko kideen artean eta lau juristen artean (EK 122.3 artikulua eta BJLO 567. artikulua). Gaineratu behar dugu, bereizitako taldeetako bakoitzeko, hots, karrera judizialeko kideak eta juristez osatutako hautagaiak, hiru ordezeko aukeratu beharko direla.

Oro har, ez da eztabaidarik sortu gobernu-funtzioa bereganatu duen Kontseilu Nagusiaren beharraren gainean, bai ordea, bere osaketaren inguruan. Eztabaida horren muinean dago BJKNko kideen aukeraketa Ganberen edo epaile eta magistratuen esku egon behar den. Epailtzari indarra emanaz gero, gerta liteke interes korporatiboak gailentzea eta benetako helburua -gizartearen zerbitzura egotea- begi bistatik galtzea. Ganbara legegileen indarra azpimarratuz gero, ordea, BJKN politizatzeak arriskua legoke. Eta horri gaineratu behar diogu, gobernu ganberen gehiengoaren ondorio izanik, botere betearazle eta botere judizialaren gobernu-organo gorenaren arteko banaketa guztiz argia ez dela.

Ondorioz, konstituziogileak BJKNren osaketaren oinarritzko gidalerroak zehazten ditu, hamabi kide karrera judizialekoak eta bestelako zortziak juristak izango direla aurreikusten du, baina, arauketaren garapena BJLOren esku uzten du. Karrera judizialeko kideak nola hautatu ezartzen duen araubidea hainbatetan eraldatu izan da (1/1980 Lege Organikoa, urtarrilaren 10ekoa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari buruzkoa; 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialaren Lege Organikoa; 2/2001 Lege Organikoa, ekainaren 28koa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren osaketari buruzkoa; 4/2013 Lege Organikoa, ekainaren 28koa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eraldaketari buruzkoa), egun indarrean dagoen sistemara heldu arte (BJLO 566-578 artikulua). Horren arabera, zerbitzu aktiboan dagoen epaile edo magistratuak hautagaitza aurkeztu nahi badu, karrera judizialean zerbitzu aktiboan dauden hogeita bost kideren abala edo epaile-elkarte baten abala aurkeztu beharko du (BJLO 574.1 artikulua). Hauteskunde-batzordeak behin betiko hautagaiak jakinaraziko dizkio Kongresu eta Senatuko presidenteei, Ganberetan BJKNko kideak aukeratu ditzaten. Erabakia hartzean honakoak izango dituzte kontuan:

BJLO 578.2 artikulua: “Epaileen txandako bokalak izendatzean, ganberek kontuan hartuko dute Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak berritzeko unean zenbat kide diren karrera judizialean, hala epaile-elkarteetan afiliatutakoen artean nola afiliatu gabeen artean”.

BJLO 578.3 artikulua: “Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko epaileen txandako hamabi bokalak izendatzean, honako proportzio hau gorde beharko da, gutxienez: Auzitegi Goreneko hiru bokal; karrera judizialean hogeita bost urte baino gehiagoko antzintasuna duten hiru magistratu; eta sei epaile edo magistratu, antzintasuna kontuan hartu gabe. Bokal izateko hautagairik ez bada aipatutako kategorietakoren batean, agindu honetan ezarritako ordenan hurrena den kategoriakoak gehituko dira”.

Hortaz, karrera judizialeko kideen hautaketan epaile-elkarteekiko mendekotasuna galdu egin da azken lege eraldaketari esker, baina, argi dago azken erabakia Ganberen esku dagoela.

2. FUNTZIOAK (BJLO 560-565 art.)

Jurisdikzio-ahalaren egikaritzak berarekin dakartzan gobernu edo administrazio funtzioei dagokienez, estatuko organo gorena dugu BJKN. Zehazki, bere funtzioak oinarrizko bi eginkizunetan banatzen dira: batetik, erabakiak hartzea, eta bestetik, txostenak egitea.

Funtzio erabakitzailari dagokionez, honako hauek dira egiteko azpimarragarrienak (BJLO 560 eta 565 artikulua):

- Auzitegi Goreneko presidentearen (era berean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidente denaren) izendapenaren proposamena.
- Epaile, magistratu, Auzitegi Goreneko magistratu eta presidenteen izendapena proposatu.
- Konstituzio Auzitegiko bi magistraturen izendapena proposatu.
- Epaile eta magistratuen aukeraketan parte hartu.
- Auzitegi Goreneko presidenteordea izendatu.
- Epaitegi eta auzitegietako gobernu-organoei instrukzioak eman.
- Epaitegi eta auzitegien ikuskapena egin.

- Epaille eta magistratuen Estatutua egin: epaille eta magistratuen hautapena, formazioa eta hobekuntza erabaki; norakoen, igoeren eta egoera administratiboen gainean erabaki; diziiplina-araubidea zehaztu...
- Eskola Judiziala kudeatu: bere egitura eta funtzionamendua arautu, zuzendaria eta irakasleak izendatu...
- BJKNren aurrekontua egin, eta horren betepena eta kudeaketa kontrolatu.
- Erregelamendu-ahalmena egikaritu honako gai hauetan: BJKNren funtzionamendu-erregimena, epaitegi eta auzitegietako gobernu-organoak, jurisdikzio-organoen espezializazioa, jurisdikzio-organoen guardiak, ponentzia eta auzien banaketa...
- Justizia Administrazioarekin zerikusia duten gaietan herritarren kexak jaso.

Txostenak egiteko funtzioari dagokionez:

- Gobernuak BJKN entzun beharko du Estatuko Fiskal Nagusia izendatu aurretik (BJLO 560.4 artikulua).
- Zenbait gairen gaineko lege aurre-proiektuei eta xedapen orokorrei buruzko txostenak egitea (Botere Judizialaren lege organikoa; mugape judizialaren zehaztea eta eraldaketa; justizia administrazioari lanpostuen zerrenda zehaztu eta eraldaketa; epaille eta magistratuen estatutua; justizia administrazioari letratuen estatutua; auzitegien eraketa, antolaketa eta funtzionamendua; zigor arauak eta kartzela eraentza...) (BJLO 561. art.).
- Gorteei, urtero, BJKNren eta jurisdikzio-organoen egoera, funtzionamendua eta jardueren inguruko txostena bidali (BJLO 563. art.).

3. ANTOLAKETA (BJLO 585-620 artikulua)

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bere jarduna burutzeko organo ezberdinez baliatzen da: presidentea, presidente ordea, osoko bilkura, eta Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitako batzordeak.

3.1. Presidentea (BJLO 585-588 eta 597-598 artikulua)

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko presidentea, era berean Auzitegi Goreneko presidentea ere badena, estatuko agintari judizial nagusia da. Erregeak izendatzen du, BJKNren proposamenez, karrera judizialeko kideen artean. Aukeraketa Auzitegi Goreneko magistratu maila duten karrera judizialeko kideen artean edo 25 urte baino gehiagoko abilezi aintzatetsia duten juristen artean egingo da eta Kontseiluko kideen hiru bosteneko gehiengoa lortu beharko dute.

Presidentearen funtzioak, besteak beste, honakoak dira:

- Osoko bilkura eta batzorde iraunkorraren saioak deitu eta horien buru izan.
- Osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren gai-zerrenda ezarri.
- Bozketetan berdinketa egonez gero, kalitateko botoa du.
- Organo teknikoak zuzendu.

3.2. Auzitegi Goreneko presidenteordea (BJLO 589-593 artikulua)

Osoko bilkurak, presidentearen proposamenez, Auzitegi Goreneko presidenteordea aukeratzen du gehiengo absolutuz. Presidenteordearen egitekoak dira:

- Presidentearen agintaldia amaitu baino lehen kargugabetzen badute, presidente berria izendatu arte, presidente ordeak beteko du kargua.
- Presidenteak behar duen laguntza eman. Presidenteordeak ordezkatu du presidentea gaixotasun edo absentzia egoeretan.
- Presidenteak eskuordeturik, Auzitegi Goreneko kabinete teknikoaren goi-zuzendaritza bete.
- Presidenteak berriaz eskuordetzen dizkion funtzio guztiak bete.

3.3. Osoko bilkura (BJLO 599-600 artikulua)

Osoko bilkura presidenteak eta 20 kidek osatzen dute. Modu baliagarrian erabaki ahal izateko beharrezkoa da presidentea eta gutxienez 10 kide egotea. Osoko bilkuraren egitekoen artean ditugu honakoak:

- Konstituzio Auzitegiko bi magistraturen izendapena proposatu.
- Auzitegi Goreneko presidentea (BJKNko presidentea dena) proposatu.
- Botere judizialeko hautazko karguen izendapena.
- Batzordeetako kideen izendapena.
- BJKNren aurrekontuen onarpena.
- Urteroko txostenaren onarpena.
- Diziplinazko zenbait espediente aztertu (zigorra karrera judizialeko baztertzea denean).
- Diziplina batzordearen diziplina espedienteen errekursoak aztertu.

3.4. Batzorde iraunkorra (BJLO 601-602 artikulua)

Batzorde iraunkorra presidenteak eta 7 kidek osatzen dute. Kide horiek osoko bilkurak aukeratzen ditu urtero, lau karrera judizialeko kideen artean eta hiru aintzatetsitako gaitasuna duten juristen artean.

Batzorde iraunkorraren eskumenak izango dira Botere Judizialaren Lege Organikoak berriaz presidenteari, osoko bilkurari, diziplina batzordeari, berdintasun batzordeari edo gai ekonomikoaren batzordeari esleitutakoak bestekoak. Horrez gain, osoko bilkuraren saioak prestatu ditu eta haren erabakien betearazpenaz arduratuko da.

3.5. Diziplina batzordea (BJLO 603-608 artikulua)

Bost urteko eperako osoko bilkurak aukeratutako 7 kidez osatzen da. Kide horietatik lau karrera judizialekoak izango dira eta beste hiru aintzatetsitako gaitasuna duten juristak. Diziplina batzordeko kideen artean kategoria eta antzintasun gehien duena izango da presidentea.

Batzordearen funtzioetara biltzen dira honakoak:

- Diziplina espedienteak erabaki, epaile eta magistratuei arau hauste larri eta oso larriengatik zigorrak ezarri behar denean. Salbuespenez, ez dira espediente horiek aztertuko zigorra banatzea denean.
- Jurisdikzio-organoen funtzionamendu okerragatiko kexak eta salaketak jaso.

3.6. Gai ekonomikoen batzordea (BJLO 609. artikulua)

Osoko bilkurak urtero aukeratuko ditu gai ekonomikoen batzordea osatuko duten hiru kideak. Batzordearen egitekoa izango da ekonomia eta finantza izaerako proiektu eta ikerketak burutzea, baita finantza jardunak ikuskatzea ere.

3.7. Berdintasun batzordea (BJLO 610. artikulua)

Osoko bilkurak urtero aukeratuko ditu berdintasun batzordea osatuko duten hiru kideak. Batzordeak bere funtzioak era egokian egikaritzeko kide guztiekin jardun beharko du. Eginkizun horien artean ditugu honakoak:

- Osoko bilkurari aholkuak eman emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa ezartzeko.
- Emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzun judizialak aztertu eta jarraipena egin.

3.8. Bestelako organo teknikoak

Aipatu berri ditugun organoetaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak baditu bestelako organo teknikoak ere:

- Idazkari Nagusia (BJLO 612-614 artikulua).
- Ikuskaritza zerbitzua (BJLO 615. artikulua).
- Kabinete teknikoa (BJLO 616. artikulua).
- Eskola Judiziala (BJLO 617-618 artikulua).
- Dokumentazio Judizialeko Zentroa (BJLO 619. artikulua).
- Komunikazio Bulegoa (BJLO 620. artikulua).

III. GOBERNU-SALAK

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko mendekotasunean jarduten duen organoak ditugu gobernu-salak. Auzitegi Gorenean, Auzitegi Nazionalean eta Justizia Auzitegi Nagusietan tokitzen diren organoak dira.

BJLO 106. artikulua:

“1. Auzitegi Goreneko eta Auzitegi Nazionaleko gobernu-salek auzitegi horietan baliatzen dituzte beren eskudantziak. Auzitegi Nazionalak, horretaz gainera, instrukzioko epaitegi zentralen gain ere baliatzen ditu.

2. Justizia-auzitegi nagusietako gobernu-salek auzitegian bertan baliatzen dituzte beren eskumenak, dagokien autonomia-erkidegoko epaitegi eta auzitegien gain.

3. Gainerako jurisdikzio-organoez dagokien esparru organikoaren gain baliatzen dituzte beren gobernu-eskudantziak”.

1. OSAKETA (BJLO 149-150 art.)

BJLOk bi gobernu-sala mota aurreikusten ditu haien eskumenen egikaritza esparrua kontuan izanik; batetik, Auzitegi Goreneko eta Auzitegi Nazionaleko gobernu-salak, eta bestetik, Justizia Auzitegi Nagusietako gobernu-salak. Gogoan izan, gobernu-saletako bakoitzak tokitutako auzitegian duela egikaritza esparrua, Auzitegi Nazionalaren kasuan salbu (Auzitegi Nazionalaz gain, epaitegi zentraletan ere gobernu funtzioak egikaritzen dituelako).

Auzitegi Goreneko eta Auzitegi Nazionaleko gobernu-salei dagokienez, organo bakoitzeko presidentez, justizia-sala bakoitzeko presidentez eta beste horrenbeste magistratuz osatuko da (BJLO 149.1 artikulua). Justizia Auzitegi Nagusietan, aldiz, presidentez, justizia-sala bakoitzeko presidentez, autonomi erkidego bakoitzeko Probintzia-auzitegi-tako presidentez eta beste horrenbeste magistratuz edo epailez osatuko dute gobernu-sala (BJLO 149.2 artikulua).

Gobernu-saletako kideak bost urteko eperako izendatzen dira.

BJLO 150. artikulua: “Gobernu-salako kide hautatu guztiak berriro egingo dira bost urtean behin, eratzen den egunetik kontaturik urteak. Epea igaro ostean, berria eratu arte, gobernu-salak bere funtzioak betetzen jarraituko du”.

2. FUNTZIOAK

Gobernu-salen funtzioak, oro har, auzitegietako presidenteei ez dagozkienak dira (BJLO 152.1 artikulua). Bereziki, honakoak aipa ditzakegu:

- Auzitegietako sala bakoitza osatzen duten atalen artean gaiak banatzeko arauak onartu.
- Urtero salen zein atalen eraketa eta antolaketa txandak ezarri. Horrez gain, ponentziak banatzeko arauak zehaztu.
- BJKNri ordezeko magistratuak proposatu.
- Diziplina ahalmena egikaritu.
- Auzitegia osatzen duten magistratuen zina edo promesa jaso eta kargua eman.
- Urtero auzitegiaren funtzionamenduari buruzko txostena egin.

Gainera, Justizia Auzitegi Nagusietako gobernu-salek funtzio gehigarriak dituzte (BJLO 152.2 artikulua):

- Probintzia-auzitegietako atalen eta jurisdikzio ordena bereko epaitegien arteko gaien banaketa arauak onartu.
- Bake-epaileak izendatu.
- Aurretiaz aipatutako funtzio orokorrak egikaritu, autonomia erkidegoan egoitza duten jurisdikzio-organoei dagokienez.

3. FUNTZIONAMENDUA (BJLO 153-159 art.)

Gobernu-salak hilean bi aldiz batzartuko dira erabakitzeko gairik badago, eta orobat, Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteak beharrezkotzat jotzen duenean edo gobernu-salako kideen herenak hala eskatuta. Lana batzordeen bidez burutuko da eta horiek osoko bilkurari jakinaraziko dizkie eztabaidatutako eta erabakitako gai guztiak. Horretan oinarrituta, justizia administrazioarentzat interesgarriak edo garrantzitsuak diren gaiak osoko bilkuran eztabaidatuko dira. Erabakirik eskatzen ez duten jardunetarako presidenteak eta bi kidek osatuko dute gobernu-sala; gainerako kasuetan, gobernu-sala balizko moduan eratzeko kideen gehiengoa bertan egotea eskatuko da.

Erabaki beharreko kontu bakoitzerako presidenteak txostengile bat izendatuko du gaia gobernu-salari azal diezaion eta beharrezko denean ebazpen proposamena egin dezan. Eztabaida amaitu ondoren, bozketa egingo da eta hartutako erabakia aurkatzeko modua badago BJKNren aurrean.

IV. AUZITEGIETAKO PRESIDENTEAK

Auzitegi Goreneko, Auzitegi Nazionaleko, Justizia Auzitegi Nagusietako eta Probintzia-auzitegietakoko presidenteak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko mendekotasunean jarduten duten gobernu-organoak ditugu.

Oro har, presidenteek, besteak beste, honako gobernu-eginkizunak dituzte (BJLO 160 eta 162. artikulua):

- Gobernu-salaren bilerak deitu eta zuzendu, baita aztertuko den gaitzerrenda finkatu ere.
- Gobernu-salaren erabakien betearazpenaz arduratu.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eskatutako txostenak egin.
- Epaitegi eta auzitegien ikuskapena zuzendu.
- Jurisdikzio-ordena bereko auzitegiko salen eta haien atalen arteko gaitan banaketa zehaztu, gobernu-salak onartutako arauen arabera.
- Dagokion jurisdikzio-organoaren ordena ona mantentzeko eta bertoko pertsonalak bere eginkizunak betetzeko ahalmen guztiak baliatu.
- Interesdunen keak entzun eta horien gaineko beharrezko neurriak hartu.
- Epaitegi eta auzitegiei funtzionamendua hobetzeko ondo deritzen neurriak hartu.

Horrez gain, presidentetako bakoitzak baditu funtzio eskusiboak. Batetik, Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteari dagokio estatuko botere judizialaren ordezkartza dagokion autonomia erkidegoan (BJLO 161.1 artikulua). Bestetik, legeak era generikoan aurreikusten ditu Probintzia-auzitegietakoko presidenteen eginkizunak, hots, auzitegi eta epaitegiaren funtzionamendurako beharrezko neurriak hartzea. Gogoan izan, Probintzia-auzitegietan gobernu-salarik ez dela existitzen eta, hortaz, Justizia Auzitegi Nagusietako gobernu-salarek eta bertako presidenteek egikaritutako dituztela zuzendaritza funtzio horiek (BJLO 164. art.).

V. JUSTIZIA-SALETAKO PRESIDENTEAK ETA EPAILEAK (BJLO 165. art.)

Aipamen berezia egin nahiko genieke bai justizia-saletako presidenteei, baita epaileei ere. Izan ere, jurisdikzio-funtzioa egikaritzeaz gain euren baitan biltzen dute gobernu funtzioa ere. Sala edo epaitegiaren zuzendaritza administratiboa dagokie; inspektzio funtzioak, diziplina auziak, jurisdikzio-organoaren jardura egokia bermatzeko neurriak hartzea eta bertako langileen jardun ona zuzentzea.

BJLO 165. artikulua: “Justizia-saletako presidenteek eta epaileek, beren jurisdikzio-organoetan, gai guztiak zuzenduko eta ikuskatuko dituzte; Justizia Administrazioaren jardun egokiak eskatzen dituen ebazpenak emango dituzte, dagokien eskumen esparruaren barruan; nabaritutako arazo edo gabezien berri emango diete auzitegi eta epaitegi-tako presidenteei, eta prozesu-legeek auzitegiarekin harremana duten profesionaleri buruz aitortzen dizkieten diziplina-funtzioak beteko dituzte.

Sala edo epaitegi bakoitzera atxikitako enplegatuei dagokienez, dagokien diziplina-araubidean aurreikusitakoa bete beharko da”.

Gogora ekarri nahiko genituzke ordenamendu juridikoko auzitegi-tan dauden justizia-salak. Auzitegi Gorenean ordenaren arabera banaketa egin da: lehenengo justizia-sala arlo zibilari dagokiona da; bigarrena, zigor ordenari buruzkoa; hirugarrena, administrazioarekiko auzien sala dugu; laugarrena, lan arloari dagokiona; eta azkenik, bosgarrena, eremu militarrekoa. Bestalde, Auzitegi Nazionala lau justizia-salek osatzen dute: zigor-sala, apelazio-sala, administrazioarekiko auzien sala eta lan-arloko sala. Azkenik, Justizia Auzitegi Nagusietan hiru justizia-sala bereiz ditzakegu: zibil eta zigor sala, administrazioarekiko auzien sala eta lan-arlokoa.

Sala horietariko bakoitzak presidentea dauka, jurisdikzio-funtzioaz gain administratiboak ere badituenak; zerbitzu eta auzien zuzentze eta ikuskapena, funtzionamendu egokirako beharrezko erabakiak hartzea, diziplinazko funtzioak... Era berean, epaileek ere haien epaitegiaren eremuan funtzio administratiboaz arduratu behar dute.

VI. EPAILE DEKANOAK ETA EPAI BATZAK

1. EPAILE DEKANOAK (BJLO 166-169. artikulua)

Epaitegi bat baino gehiago dagoen herrialdeetan existitzen den organo administratiboa dugu. Epaile dekanoa aukeratzeko bi bide edo modu daude herrialdeetako bakoitzean tokitutako epaitegi kopuruaren arabera.

Hortaz, hamar epaitegi baino gehiago dauden lurralde eremuetako epaile dekanoa tokiko epaileek aukeratzeko dute hiru bosteneko gehiengo. Lehenengo bozketan akordiorik ez badago, bigarrenetan gehiengo soilarekin nahiko izango da dekanoa aukeratzeko. Berdinketa gertatuz gero, eskalafioan posturik onena duenak lortuko du dekanotza. Epaile dekanook 4 urtetan zehar

egikarituko ditu bere eginkizunak. Hamar epaitegi baino gutxiagoko herrietan, aldiz, eskalafioan posturik onena duen epailea izango da dekanoa.

Kontuan izan behar dugu dekanotzak ez duela jurisdikzio-funtzioetatik salbuesten, berrogei epaitegi baino gehiagoko herrietan izan ezik.

Epaile dekanoarean funtzioen artean honako hauek ditugu:

- Areto judizialen eta baliabide materialen erabilpen ona zaindu.
- Guardiako zerbitzua era egokian burutzen dela zaindu.
- Banatu ez diren auzi zibilen premiazko neurriak hartu.

2. EPAI-BATZAK (BJLO 169-170 artikulua)

Botere publikoen aurrean epaile dekanoa da organo judizial guztien ordezkaria, eta epai-batzen buru izango da jurisdikzio-organoen guztien edo batzuen titularren jardueraren gainean interesa duten gaiak eztabaidatzeko. Epai-batzak deitu beharko dira herrialdeko epaileen laurdenak horrela eskatuz gero.

Botere Judizialaren Lege Organikoak berak hiru epai-batza mota aurreikusten ditu:

- Epaileen batza orokorra: Herri bateko epaitegi guztien intereseko gaiak aztertzen dira eta epaile dekanoarean zuzendaritzapean tokiko epaile guztiek osatzen dute. Batzarako deialdia dekanok egingo du beharrezkoa deritzon edo epaileetako laurdenak hala eskatuta.
- Epaileen batza sektoriala: Herri bereko eta ordena bereko epaileez osatua (arlotan zibila, zigor arloa, administrazioarekiko auzien arloa eta lan arloa). Epaile dekanok presidituko du eta deialdia epaileen laurdenak hala eskatuta egingo da. Bertan, banaketa arauak proposatuko dira, irizpideak bateratuko dira, edota amankomunean dituzten arazoak argituko dira.
- Probintziako edo autonomia erkidegoko epaileen batza: probintziako edo autonomia erkidegoko organo guztietako epaileek osatutako batza. Biltzeko deialdia Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek egingo du, baina, epailerik zaharrenak presidituko du.

VII. AUZITEGIEN IKUSKAPENA (BJLO 171-176 artikulua)

Gobernu funtzioetan esanguratsuenetako bat ikuskapen-funtzioa bera dugu. Ikuskapen eginkizunak bere baitan biltzen du jurisdikzio-organoen jarduna aztertzeko beharrezkoa den oro, pertsonal judizialaren egitekoak edota auzigaien tramitazioaren arintasuna eta eraginkortasuna kasu. Dena den, ikuskapenaren bidez ezin izango da jurisdikzio-organoei legearen gainean egindako interpretazioa eta aplikazioa zuzendu, onetsi edo gaitzetsi (BJLO 176. artikulua).

Gobernu-organoek egikaritzen duten ikuskapen-funtzioa hiru motatan bana dezakegu:

- Goi ikuskapena: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokiona, ikuskapen zerbitzuaren bitartez edo osoko bilkurak nahiz presidenteak eskuordetutako epaile edo magistratuaren bitartez burutzen dena.

BJLO 171. artikulua:

“1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren esku dago auzitegi guztiak gainetik ikuskatzea eta zaintzea, Justizia Administrazioaren funtzionamendua egiaztatzeko eta kontrolatzeko.

2. Kontseiluko presidenteak eta bokalek, Osoko Bilkuraren adostasunez, informazioa jasotzeko bisitak egin ahal izango dituzte organo horietara.

3. Beharrezko iritziz gero, Kontseiluak edo presidenteak agindua eman dezakete haren mendeko ikuskapen-zerbitzuak, edo edozein auzitegi edo epaitegitako presidente, magistratu edo epaileek, ikuskapenak egin ditzaten epaitegi edo auzitegietan, edo informazioa jaso dezaten enplegatu judizialen betebeharren funtzionamenduari eta betetze-mailari buruz.

4. Justizia Ministerioak, beharrezko irizten dionean, Kontseiluari eskatu ahal izango dio edozein epaitegi edo auzitegi ikuskatzeko agindua eman dezan. Kasu horretan, Kontseiluak Justizia Ministerioari jakinaraziko dio zer ebazpen eman duen eta, hala badagokio, zer neurri hartu dituen. Horrek guztiak ez ditu eragotziko lege honek Fiskaltzari ematen dizkion ahalmenak”.

- Ikuskapen arrunta: Auzitegi Goreneko presidenteak auzitegi horretako sala edo ataletan eginikoa. Era berean, Auzitegi Nazionaleko presidenteak auzitegi horretan eta epaitegi zentraletan eginiko ikuskapena. Justizia Auzitegi Nagusiei dagokienez, bertako presidenteak autonomia erkidegoan dauden organoak ikuskatzeko bidea. Eta azkenik, Probintzia-auzitegietako presidentek eskuordetze bidez egikari ditzakete ikuskapen funtzioak.

BJLO 172. artikulua:

“1. Auzitegi Goreneko presidenteak auzitegi horretako sala eta atalen ikuskapen arrunta zuzentzen du eta haien funtzionamendua zaintzen du.

2. Justizia-auzitegi nagusietako presidenteek funtzio berak betetzen dituzte dagozkien lurralde-esparruetan.
3. Auzitegi Nazionaleko presidenteak aurreko zenbakietan adierazitako ahalmenak ditu auzitegi horretako salen eta epaitegi zentralen gain.
4. Probintzia-auzitegi-tako presidenteek eskuordetzez bete ahal izango dituzte beren esparruko epaitegi eta auzitegiak ikuskatzeko lana eta agindutako beste administrazio-funtzio batzuk”.

- Barne ikuskapena: epaile eta sala zein ataletako presidenteei dagokiena. Haien eskumenen barruan ez dauden neurriak hartu behar direla uste izanez gero, goiko gobernu-organoari jakinarazi beharko diete, haiek erabaki dezaten.

BJLO 174. artikulua:

“1. Atal eta saletako epaile eta presidenteek ikuskatuko dituzte beren ardurapeko gaiak.

2. Gehiegikeriarik ez gertatzeko, epaile edo presidente horien ustez komenigarria bada beren eskumenekoa ez den neurri bat hartzea edo bisitak egitea epaitegi edo auzitegi jakin batera, horren berri emango diote Auzitegi Goreneko, Auzitegi Nazionaleko edo Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteari, hark egoki iritzitakoa erabaki dezan”.

VIII. MATERIAL OSAGARRIA

1. Araudia

- Espainiako Konstituzioa
- Botere Judizialaren Lege Organikoa
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren erregelamenduak, besteak beste:
 - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren antolaketa eta funtzionamendu erregelamendua
 - Eskola Judizialaren erregelamendua
 - Dokumentazio Judizialeko Zentroaren erregelamendua

- Epaitegi eta auzitegien funtzionamenduaren gaineko kexak eta salaketak izapidetzeko erregelamendua
- Auzitegietakako gobernu-organoen erregelamendua
- Elkarre judizial profesionalen erregelamendua

2. Jurisprudentzia

- KAE 108/1986, 1986ko uztailak 29.

3. Bibliografia

- CASTILLO CALVÍN, José Miguel. “La reforma del Consejo General del Poder Judicial”, Diario La Ley, 8126. zk., 2013.
- ELÍAS BATURONES, Julio José. “Un Consejo General del Poder Judicial independiente”, La Toga, 184. zk., 2011, 55-56. or.
- IÑÍGUEZ HERNÁNDEZ, Diego. “El Consejo General del Poder Judicial”, in: CASCAJO CASTRO, José Luis eta MARTÍN DE LA VEGA, Augusto. *Participación, representación y democracia: XII Congreso de la Asociación de Constitucionalistas de España*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2016, 381-415. or.
- IÑÍGUEZ HERNÁNDEZ, Diego. “La contrarreforma del Consejo General del Poder Judicial”, *Teoría y realidad constitucional*, 34. zk., 2014, 333-348. or.
- IÑÍGUEZ HERNÁNDEZ, Diego. “¿Otra reforma del Consejo General del Poder Judicial?”, *Temas para el debate*, 217. zk., 2012, 20-22. or.

4. Web-orriak

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia:
<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Consejo-General-del-Poder-Judicial/>
- Ikuskapen zerbitzua:
<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Inspeccion/El-Servicio-de-Inspeccion/>
- Eskola judiziala:
<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Escuela-Judicial/>
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren akordioak:
<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Consejo-General-del-Poder-Judicial/Actividad-del-CGPJ/Acuerdos/>